



**EBAZPENA, 2008KO ABENDUAREN 17KOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEARENA, "TELEFONIA MUGIKORRA EUSKARAZ"
IZENBURUPEAN, IRAGARKIAK HAINBAT EGUNKARI ETA IRRATITAN
TXERTATZEKO(K-54/2008) KONTRATAZIOA BEHIN BETIKO ESLEITZEKO DENA**

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko azaroaren 4ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-54/2008 espedientea onartu zen, esleipen prozedura bezala publizitaterik gabeko negoziatua erabiliz, Alor Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 158 e) eta 161.2 artikuluekin bat etorritz.

Bigarrena.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko azaroaren 26ko Ebazpenaren bidez, behin-behinean esleitu zitzaion idazpuruko K-54/2008 espedientea MEDIASAL, 2000 S.A. enpresari.

Hirugarrena.- 2008Ko azaroaren 26an behin-behineko esleipena argitaratu zen EAEko Kontratatzailearen Profilean (www.euskadi.net/kontratazioa), halaxe agintzen du eta Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak 135.3 artikuluan.

Laugarrena.- Enpresa esleipendunak 2.565,28 euroko bermea jarri du (Erregistro Zk. D200801554, Bilbao Bizkaia Kutxan, 730059103-5 zenbakia duen abal bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, legeak agintzen duen epean eta moduan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu zen egunaren biharamunetik hamabost egun baliodun pasa direnez eta esleipendunak bermea garaiz eta forma egokian aurkeztu duenez, bidezkoa da behin-behineko esleipen hori behin betiko bihurtzea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 135.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.



Bigarrena.- Kultura Sailaren egitura organikoa onartu eta kontratazio-alorreko eskumenak finkatzen dituen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i) artikulua kontratazio arloko funtzioak esleitzen dizkio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari.

Espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- MEDIASAL 2000,S.L. enpresari (IFZ A-48944268) esleitzea behin-betiko "Telefonia Mugikorra Euskaraz" izenburupean, iragarkiak hainbat egunkari eta irratitan txertatzeko zerbitzuaren kontratazioa (K-54/2008 espediente), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera eta ondorengo eskaintza ekonomikoaren arabera hau da, 51.305,16 € eta 8.208,82 € BEZen kontzeptuan, esleipen kopuru guztia 59.513,98 €.

Bigarrena.- Iragarkiak 2008ko abenduaren 20tik 2009ko urtarrilaren 5era arteko tartean txertatu beharko dira.

Hirugarrena.- Behin betiko ebazpen hau kontratatzailearen profilean argitara dadila agintzea (www.euskadi.net) eta interesdunei jakineraztea.

Laugarrena.- Formaliza bedi kontratua, dagokion administrazio-agiriaren bitartez.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 17an



PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako Sailburuordea